


ALEX SOTO "Villalobos daukat eredu"

ALTUERA JAUZIA



15 URTE BETE BERRI DITU IRAILEAN ETA 1'88KO GARAIERA DU. PASA DEN UZTAILAREN 13AN BURGOSEN OSPATU ZIREN KADETE MAILAKO ESPAINIAKO ALTUERA JAUSIKO LEHIAKETETAN TXAPELDUN ATERA ZEN, 2 METRO ETA 4 ZENTIMETROKO ALTUERA IGARO OSTEAN. EGINDAKO MARKA HAU, HISTORIA OSOAN, ADIN HORREKIN EGIN DEN 5. MARKA ONENEN ARTEAN DAGO. GAZTE HONEK ETORKIZUN OPAROA DU DUDARIK GABE. ENTRENAMENDUAK HASI ORDUKO, TARTE BAT ESKAINI DIGU

- *Zenbat urterekin hasi zinen?*

12 urte izango nituen. Krosarekin hasi nintzen. Dena den urte hauetan salto hirukoitza, pisu jaurtike-ta..., denetarik egin izan dut.

- *Iaz 1'80 jausia egin zenuen, aurten 2'04.*

Aurten gauzak serioago hartu ditut. Gogor entrenatu dut.

- *Burgosen izugarritzko erakustaldia eman zenuen...*

Bigarrenak 1'89 jausia egin zuen. Gure hasierako desioa Bizkaiko errekorra gainditzea zen 1'96ko altuera alegia. Hura pasa nuenean 2 metroekin saiatu nintzen eta hura pasa nuenean Espainiako errekorra gainditu nuen.

- *Iaztik hazi zara. Lesio txikiren bat izan duzu...*

Azkenaldian lepoko minekin nabil. Iaztik hona ere asko hazi naiz eta hori izan daiteke min horren eragile.

- *Udaran Pariseko Munduko Atletismo txapelketak izan dira...*

Oso gustora jarraitu ditut telebistaz. Noizbait bertan egotea nahiko nuke. Horretarako asko hobetu beharra daukat.

- *Entrenamenduak zer moduz?*

Astean 3 aldiz aritzen gara. Aurten Antoniok altuera jausira egokitutako entrenamendu plana egin dit.

- *Urtean zehar erakustaldi eta txapelketak izango dituzu...*

Herri bateko jaiak direla edo eta probintzia mailako txapelketak direla, izaten da bai non aritu.

- *Dirulaguntzarik jasotzen duzu?*

Kadete mailara arte ez dago diru laguntzarik. Dena den Espainiako Federazioak gonbidatuta, zenbait elkarteratze egin izan ditut gainontzeko atletekin batera.

- *Javi Villalobosen esperientziak asko lagunduko ditu...*


Bera daukat altuera jausian eredu. Harek duen esperientzia oso garrantzitsua da niretzat eta hasi berriontzat. Askok sufritu duen mutila da eta lehiaketetan asko ikasi du.

Asier Ibaibarriaga

iritzia...

ANTONIO CID,
Alexen entrenatzailea

"Astiro joan beharra dago. Askok erre dira adin honetan. Egin duen marka izugarria izan da. Hala ere, 1'90 zentimetroko altuera ondo gainditzeko saiaturako gara aurten, altuera haundiagoetan murgildu aurretik. Entrenamenduetan asko saiatu beharra dauka. Lehiakortasun handia duen mutila da."



optika

ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 71



Zubiaurre 20

**Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona**